

# Ondarearen Europako Jardunaldiak 2024

## Kulturaren bideak Donde conecta la cultura

2024/04/05

Santa Teresa  
Komentua



GIPUZKOA 2024 URRIA / OCTUBRE

@GIPUZKOA KULTURA



# 1- JARDUNALDIEN AURKEZPENA

2- 2023ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN  
BALORAZIOA: Ondarea bizirik! Patrimonio vivo

3- 2024ko OEJ-ko GAIA: IDEIAK ETA IKUSPEGIAK

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

**Bederatzi urtez** jarraian, **2024eko udazkenean** Ondarearen Europako Jardunaldietara batuko da Gipuzkoa.

**Ondarearen inguruan** urri aldera izaten diren **ekitaldi multzo bat** dira jardunaldiak.

Europako Kontseiluak eta **Europako Batzordeak** 1999tik ospatzen dute ekitaldi hau Europako 50 herrialdetan.

**Euskadin**, hiru **foru aldundiek** bultzatzen dituzte, **Eusko Jaurlaritzaren** laguntzarekin.

Urtero **gai bat ardatz** hartuta, **ondarearen** inguruan **ekitaldi kultural ugari** antolatzen dira: bisita gidatuak, tailerrak, emanaldiak, ikuskizunak, pista jolasak, erakusketak...



# ZENBAKIETAN...

2016tik...



22.016

PARTE -  
HARTZAILE



426

EKITALDI



+40

HERRI



268

ERAGILE



%95

BERRIRO  
PARTE  
HARTZEKO  
PREST

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Helburuak:

- Ondarea **pertsona guztiei zabaltzea**
- Ondarea **berdintasunez eta unibertsalki eskuratzea** sustatzea
- **Herritarrak kultur ondarearen garrantziaz sentsibilizatzea**
- **Ondarea gazteengana hurbildu** nahi duen **egitasmoa**
- Programan **eragile berriak** gehitzea

# ZER DIRA ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIAK?

## Guztion arteko proiektua

**Edozein antolakundek, entitatek, elkartek edo herritarrek parte har dezake**, jarduera bat antolatuz oso **formatu desberdinetan** (ikuskitunak, antzezlanak, ezohiko bisitak, dastaketak, erakustaldiak, txangoak, bizikleta ibilaldiak...), **ondarea ezagutarazteko**, inguratzen gaituena ezagutzeko, eta, jasotako herentzia hori gozatzeko, garenak izatea eginarazten gaituena.

**Benetako protagonistak**, kultur eragile guztiak dira, **jarduera berezi hori edo horiek antolatzen animatzen direnak, alegia.**

# ZERGATIK PARTE HARTU?

- Zuretzat **ezinbestekoa dena partekatzeko** eta tokiko ondarearen aitortpena sustatzeko
- **Gizarte harreman berriak** errazteko eta komunitateak sortzeko
- **Kultur eragileen komunitate aktiboan** sartzeko
- Zure antolakuntza berrikuntzaren bitartez hobetu, hau da, **formatu**, ideia eta esperientzia berriekin
- Zure proiekturako edo zentrorako **publiko berriak erakartzeko**
- Asebetetze maila handiko egitarau bat delako



# ZER ESKAINTZEN DA?

Gipuzkoako Foru Aldundiak **programa sustatzen, koordinatzen, zabaltzen eta argitaratzen du**, Arabako eta Bizkaiko Aldundiekin elkarlanean, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

**Koordinazioa:** Ondarearen Europako Jardunaldien Bulego teknikoa (K6 Gestión Cultural), Parte Hartzeko Gida.

**Aholkularitza:** *Iñaki Arrieta irakasleak, EHU* (Euskal Herriko Unibertsitatea), **Mondragon Unibertsitateko LEINN graduko** lan taldeak (egitasmoa **gazteei** hurbiltzeko asmoarekin: webinarren bidez, aholkularitza saioen bidez, difusioa kanpaina...)





# ZER ESKAINTZEN DA?

## Difusioa:

Online: ekimenaren webgunea  
([www.europako-ondarea.eus](http://www.europako-ondarea.eus))

**Gipuzkoako aktibitate guztiak Gipuzkoa Kultura webgunean**, Hedabideetan (aurkezpenaren prentsaurrekoa...)

**Offline:** katalogoa (6.000 ale)




europako-ondarea.eus

### Zer jarduera mota aurkituko dituzu?

Euskadin, Ondarearen Europako Jardunaldiak mota guztietako 300 jarduera inguru antolatzen dituzte adin eta ikusnahi guztietarako: jardunaldi irekiak, tailerrak, kontzertuak, jaialdiak, erakustaldiak, ibilbideak, erakusketak, errezitaldiak, bisita gidatuak eta parte har dezakezun beste asko. Animatzen al zara?

- Tailerrak
- Bisitak
- Antzerkia
- Mendi-ibilikiak
- Jolasak

# DIFUSIOA: Hedabideak



## Hosto ikastaroa, ondare jardunaldiekin hasteko



Legazpi

Gizartea

2022/10/13

T. Madinabeitia

Ondarea loratuz, gozatu! lelopean Gipuzkoan egiten ari diren Ondarearen Europako Jardunaldiak Legazpira iritsiko dira igandean, Lenbur Fundazioaren eskutik. Foru Aldundiaren laguntzarekin, Lenburrek hiru ekintza antolatu ditu datozen asteetarako jardunaldi horien barruan, eta lehen, igande goizean egingo den *Hostoekin jolastu eta sortu* ikastaroa egingo da.

Mirandaola parkean eta Euskal Burdinaren Museoa egingo da tailerra, 11:00etatik aurrera, Nagore Bengoetxeak gidatuta. Zuhaitz hostoekin eskulan bat egingo dute partaideek. Lehenik, hostoak bilduko dituzte parkean, eta gero, museora joan eta kolore eta forma desberdinak nahastuz, apaingarria egingo dute hosto horiekin, jarduera honen xedea haurrak naturarekin harremanetan jartzea da.




## Las VIII Jornadas Europeas del Patrimonio programan desde hoy más de cien actividades

Una treintena de localidades guipuzcoanas acogerán hasta el mes que viene los eventos incluidos en "Ondare bizirik! Patrimonio vivo"



Organizadores y promotores de algunas de las actividades programadas, durante la presentación de ayer



"Itsasos" emanaldia egin dute Donostiako Euskal Itsas Museoa  
itsasoko abestiei balioa emateko  
gaur egun 20:32



## La laia se hace joya de la mano de Aranzadi y estudiantes de diseño

Varias alumnas del ciclo de Artes Plásticas y Diseño en Joyería Artística, en colaboración con Aranzadi, se basan en las laias, una herramienta rural, para crear originales piezas

Néstor Rodríguez

20/10/22 17:29 Actualizado a las 14:25



Mika Sainz, Laura Ward y Begoña Conde (alumnas del ciclo de Joyería), Maite Aranzadi y Subertzi Mendiola (Aranzadi). Maite Aranzadi (profesora del ciclo) y Begoña Conde (estudiante)

# DIFUSIOA: online

## Erakundeetako sare sozialetan promozioa eta iragarkiak




[@GipuzkoaKultura](https://twitter.com/GipuzkoaKultura) (7.223 jarraitzaile)



[@OndareaEuskadi](https://www.facebook.com/OndareaEuskadi) (7.900 jarraitzaile)



[@jep\\_euskadi](https://www.instagram.com/jep_euskadi) (790 jarraitzaile)



# ZEIN DA PARTE HARTZEKO PROZESUA?



# 2- 2023ko OEJ-en BALORAZIOA

ONDAREAREN EUROPAKO  
JARDUNALDIAK 2023



JORNADAS EUROPEAS  
DEL PATRIMONIO 2023



## ondarea bizirik!

PATRIMONIO VIVO

## Iraila - azaroa 2023



# Ondarea bizirik! Patrimonio vivo



**33** udalerrri

**84** aktibitate


**107** ekitaldi

**70** eragile  
antolatzaile

**3.600**  
parte-hartzaile



# 2023eko berrikuntzak



- **OEJ Gipuzkoako webgunean diseinu hobekuntzak:** edukien antolaketa, webgunearen helbide erraza [www.gipuzkoa.eus/oej](http://www.gipuzkoa.eus/oej)
- **Garraio publikoaren informazioa** ekitaldietan

Ondarearen Europako Jardunaldiak Europako Kontseiluaren ekimena dira, Europako Batzordearen babesarekin eta, funtsean, herritarren eta bere ondasun artean lotura bat finkatzeko asmoz ospatzen dira. Ate irekien jardunaldi modura daude sortuak eta aurrekaririk gabeko arrakasta ukan dute Europa osan estatu kide baino gehiagok parte hartzen dute ondarearen hedapenerako ekitaldi handi honetan.

Ondarearen Europako Jardunaldien helburua antza da:

- Europako herritarrak sensibiltzatzea Europako kultura aberastasunaren eta aniztasunaren inguruan.
- Europako kulturek osatzen duten mosaiko aberatsaren balioztatzea sustatzea
- Kulturarteko estabaida sustatzea.
- Atrazakeriari eta xenofobiari aurre egitea eta Europan tolerantzia gehiago egon dadin bultzatzea, muga nazionaletatik harago joz, eta nortasun berri partekatzearen sentimendu europarra indartzea.
- Gizartearen arduradun politikok ondarea mehatxu berrien aurrean babesteko premiarekin inguruan sensibiltzatzea.
- Europari agertzen diren erronka sozial, politiko eta ekonomiko berriei aurre egiteko gonbitea luzatzea.



**BUS. PESA (Donostia Bilbao)**  
**BUS. LURRALDEBUS: D003, G001, G003, G004, G005**



**TRENA/TREN. RENFE: C1**



# 2023eko berrikuntzak



- **Irisgarritasun hobekuntzak**

Programa **PDF- irisgarrian. QR kodea  
brailez** liburuxkaren azalean

**Diseinu irisgarriagoa** (egutegia, testuen  
aurkezpena...)

# Difusioa

**Programa:** Eragileei egindako galdeketa baten ondoren, liburuxken banaketa murriztu zen, jasangarritasunarekin bat datorren kopuru egoki bat lortzeko lan egiten jarraituko dugu, %30ak liburuxka gehiegi jasotzen zituela zioen eta. Programa honela banatu zen:

## Banaketa:

- Kultur etxeak
- Udalak
- Artxiboak
- Museoak
- Turismo bulegoak
- Elkarteak

**Instituzio webguneak**  
**Kulturklik**  
**Gipuzkoa kultura**



"Ondarea bizirik! Patrimonio vivo" programaren 31k 107 ekitaldi baino gehiago eskaintzen ditu. Gipuzkoako 33 herritan. Eskaintza diru jardueren gure ondarea bizirik mantentzeko asotariko moduan: erakunde, elizburu, artistak, kontserbazio eta babes teknikak, ondarea zaintzen duten komunitateak eta, baita ere, irratia, transmisioak, argitalpen duena gure hizkuntza, tradizio, jai, lehi eta ospakizunen erakunde eta espazio nabarmena zuzenean gure herri eta herien egunerokotasunetan.

Jardueren programari 50 eragile baino gehiagoren lagarren erraztasun da. Bat egitea bultzatzen duen Gipuzkoako Foru Aldundia ekitaldi bakoari antolatzaileko delaren. Ekitaldiaren alde nagusia izango da Gipuzkoako ondare garantziazua ezagutzaren, transmisioaren jentzia

## Ondarearen Europako Jardunaldiak 2023: "Ondarea bizirik! Patrimonio vivo"

100 ekitaldi baino gehiago izango dira «Ondarea bizirik! Patrimonio vivo» programan, aztertzeko gure ondarea nola mantentzen den bizirik

2023/10/02 KULTURA

- Ondarearen Europako Jardunaldien VIII. edizioa lurraldeko 33 udalerritan baino gehiagotan egingo da.
- Goizane Álvarez: Goizane Álvarez Irrijoa, Kultureko diputatua: «Aurtengo programan 84 jarduera baino gehiago egingo dira, 107 ekitaldi baino gehiagorekin, lurraldeko 33 udalerritan barrena».
- Jardueretan aztertuko da gure ondarea nola mantentzen den bizirik, artisautza, kontserbazio eta zaintza teknikak, ondarea zaintzen duten komunitateak...
- Jarduera programak braille inprimatutako QR kode bat dauka, jardueren ibilbidea formatu irisgarrian deskargatzeko aukera ematen duena.



Gaur goizean, Goizane Álvarez Kultura, Gazteria eta Kiroletako diputatua aurkeztu du «Ondarea bizirik! Patrimonio vivo» Ondarearen Europako Jardunaldien VIII. edizioa, aurtengo jardunaldien zenbait antolatzaileekin batera



# Difusioa

## Prentsa-oharrak eta prentsaurrekoa:

Gaiaren aurkezpena eta antolatzaileei deialdia (1)

Jardunaldien aurkezpena (1)

Komunikabideetako **agerpenak beherakada izan dute (%20)**. Jardunaldietako aktibitateei buruz zabalkunde handiagoa duten hedabideetan hitz egin da.

EL DIARIO VASCO

### Las VIII Jornadas Europeas del Patrimonio programan desde hoy más de cien actividades

Una treintena de localidades guipuzcoanas acogerán hasta el mes que viene los eventos incluidos en "Ordere basiki" Patrimonio vivo

La laia se hace joya de la mano de Aranzadi y estudiantes de diseño

Varian alumnas del ciclo de Artes Plásticas y Diseño en Ingeniería Artística, en colaboración con Aranzadi, se basan en San Laia, una herramienta rural, para crear originales piezas.

Noticia Indígena

2024/05/02 10:00 Actualizado a las 10:00

etb1

"Itsasos" emanaldia egin dute Donostiako Euskal Itsas Museon itsasoko abestiei balioa emateko gaur egun 20:32

# Difusioa


- Ondarearen Europako Jardunaldien webgunea [www.europako-ondarea.eus](http://www.europako-ondarea.eus)
- Gipuzkoako programa , Bizkaia eta Arabakoekin batera zintzilikatu da
- 2023an webguneak **3.712 erabiltzaile** izan zituen
- Webgune honetara jendea erakartzeko, **Googlen iragarkiak** egiten dira



# Parte - hartzaileak


Parte hartzen duten pertsonen% **66,7ak**, jardunaldietan lehenengo aldiz parte hartzen du, eta ehuneko hori igotzen ari da. **%30a publiko fidela** da eta %4 oso fidela.

Ondarearen Europako Jardunaldietako aktibitate batean parte hartzen duzun lehen aldia da? / ¿Es la primera vez que participas en una actividad de las Jornadas Europeas del Patrimonio?  
105 respuestas



- Bai- Sí
- Ez, edizio batzuetan parte hartu dut - No, he participado en varias ediciones
- Ez, edizio guztietan parte hartu dut - No, he participado en todas las ediciones

# Parte hartzaileak - adinak




Parte hartzen duten pertsonen adin-tartea 2022arekiko aldatu egin da, eta **jardunaldietara hurbildu den publikoa gaztetu egin da.**

21-30 eta 31-40 adin tartearak gora egin du.


**Programak Gipuzkoan askotariko** adin-tartearak izaten jarraitzen du eta 51-65 adin tartea gehiengoa (%44) da.

# Parte hartzaileak - nola ezagutzen dituzte aktibitatea?



Oso anitza **% 28** ezagunen ahotik **belarrira**, eta ondoren jardunaldien **sare sozialak** (%15), jardunaldien programan (%12) **webgunea** (%7) **hedabideak** (%6)

# Parte hartzaileak - zergatik animatzen dira aktibitateetan parte-hartzera?



Oso anitza: **% 44a ekitaldiaren gaiarengatik.** Honekin bat jardunaldien **aktibitate motagatik (%31,3),** eta **azkenik lekua ezagutzeagatik (%23,8) hedabideengatik (%6)**



# Antolatzaileen iritzia 2023an

**Eragileen %100ak** errepikatuko luke.

**%54ak ezohiko publikoak erakarri ditu.**

Lekua ezagutzen ez duten interesatuak nabarmentzen dira eta bere komunitateik kanpo dauden publikoak: beste eskualdekoak, elkartekoak ez direnak, adin ezberdinetakoak...

**Gaia:** Lehen baino lehen jakitea zein izango den gaia.

**Difusio gehiago** sareetan, inbertsioa publizitatean.

Katalogoaren **banaketa lehenago** egin.

Ekitaldieen **zehir jarraipen gehiago** izan.

Zabalpena denborarekin eta gehiago egin behar da. Erabiltzaile bezala Bizkaiko ondare jardunaldien iragarkiak behin eta berriro irtetzen zitzaizkidan, baina Gipuzkoakoak bilatu egin behar nituen.

# 3- 2024ko OEJ GAIA: IDEIAK ETA IKUSPEGIAK

## Kulturaren bideak Donde conecta la cultura



GIPUZKOA 2024 URRIA / OCTUBRE

@GIPUZKOA KULTURA



# Kultur Ondarea

## Zer da kultur ondarea?

Herri, **gizarte edo komunitate baten identitateak adierazten** dituzten adierazpide esanguratsuenak.

**Materialak:** Monumentuak, Monumentu-multzoak, eremu arkeologikoak edo paleontologikoak, Lorategi historikoak, Kultura-ibilbideak, Kultura-espazioak...

**Ez materialak:** ahozko tradizioak eta adierazpideak; hizkuntza barne, kultura-ondare immaterialaren hedatzailea den aldetik, eta toponimia. Bertsolaritza, Musika, Dantza, Emanaldi tradizionalak eta oroitzapenezkoak, Usadio sozialak. Gastronomia, Kirola, Jai-ekitaldiak, Naturarekin eta unibertsoarekin lotutako ezagutzak eta usadioak, Eskulangintzari eta industriari buruzko teknikak.

## Konplexua eta anitza



# 2024ko gaiaren azalpena

## **"Ibilbideen, sareen eta loturen ondarea"**

- Gizartea sareen gainean eraikitzen da.
- Hartu-eman kultural, sozial, ekonomiko, zientifiko eta gainerakoek gizartean eta bere kultura- ondarean eragina izan dute, eta dute.

## **"Kultura lotzen del lekua"**

- Hartu-emanek Gipuzkoako kulturaren ibilbidean eragina izan dute, eta dute.
- Kulturaren ibilbidean ondarea sustatzen da, eta, beraz, ondareak berak ibilbide hori sinbolizatzen eta erakusten du.

# 2024ko ONDAREAREN EUROPAKO JARDUNALDIEN HELBURUAK

- Hartu-emanak kultura-ondasunen eraikitzaileak.
- Komunitateen arteko harremanak kultura-ondarearen sustatzaileak.
- Ondare eragileen sareak kultura-ondarearen dinamizatzaileak.

# NONDIK HASI? Lan-ildoak

## Hartu-emanak kultur ondasunen eraikizaileak

- Kanpoko osagaiek edo elementuek tokiko ondarearen jarraitutasunean eta aldaketan, tradizioan eta berrikuntzan eragina dute. Bertako zein kanpoko osagaiez osatutako gurutzaketa.
  - Ondasun materiala (arte-lanak, eraikinak, monumentuak, objektuak, gaiak...).
  - Ondasun immateriala (bertsolaritza, musika, dantza, gastronomia, kirola, jaiak, eskulangintza, usadioak, ezagutzak, teknikak...).
  - Kultura paisaia (hiri guneak, eremu arkeologikoak, gune historikoak, kultura-ibilbideak, toki sinbolikoak...).



Igartubeiti Baserri Museoa

# NONDIK HASI? Lan-ildoak

## Komunitateen arteko harremanak kultura-ondarearen sustatzaileak

- Ez dago kultura-ondarerik komunitaterik gabe. Hauek ondarearen eragile gisa aitortzeko aukera bat da.
- Gipuzkoako herritarrek eta gizarte taldeek izandako hartu-emanek, bertan zein kanpoan, ondasun materiala eta immateriala eta kultura paisaia bideratu dituzte (pertsonaiak, elkarteak, erakundeak, gizarte mugimenduak...).



“Cocinas del mundo”, Zumalakarregi museoa

# NONDIK HASI? Lan-ildoak

## Ondare eragileen sareak kultura-ondarearen dinamizatzaileak

- Kultura-ondarea dinamizatzeko ondare eragileen jarduerak ezinbestekoak dira. Haiek arteko sareek kultura-ondarea suspertzen dute (ondare-proiektu komunak, erakusketa ibiltariak, promozio kolektiboak, ikerketak eta ezagutzak partekatzea...).



Pirinioetako Burdinaren Ibilbidea





# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

## Aktibitate baterako ideia bat daukazu?

2020ean argitaratu genuen parte hartze gida irakurtzea gomendatzen dizugu.

Ondarea ildo duen ekitaldi handi honetan parte hartzeko, bertan lagungarri izan ditzakezun informazioa eta aholkuak dituzu!



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

**Adibidez**, pertsonen jakin mina bisitatzen ari diren tokiekin edo gaiekin **konexioak eta loturak** bilatuz piztu dezakezu.

Jakin-minak eta **esperientzia partekatuak** inguratzen gaituen aniztasunari buruz gehiago ikastera garamatza eta gure ondarea zaintzeko grina sustatu.

**Gure etorkizunaz** hausnartzeko aukera izan daiteke. Gure ondarearen zaintza gure etorkizunaren zirriborroa sortzeko balio dezake...



# NONDIK HASI? AHOLKU BATZUK...

## Elkarlanean indartsuagoak gara!

Askotan, beste elkarte/eragile batekin elkartzeak ezinezkoa izan zitekeen ideia bat aurrera eramateko baliogarria izan daiteke.

Beste **kolektibo batzuetara hurbiltzeak ezagutza ematen dizu**: kontsumo taldeak, ingurumena zaintzen duten pertsonak, birziklatze enpresak, energia garbia ekoitzen duten enpresak, elkarteak...



# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2024ko OEJ-ETAN?

## Idea batzuk...

### Hartu-emanak kultur ondasunen eraikitzaileak

1. Tailer bat antolatu artisautza tradizionalak ezagutzeko – adibidez, arropa jostea, ehuntzea edo egitea – **eta jaso dituzten eraginak erakutsi.**
2. Migrazio handiak izan al dira zure komunitatean industriak edo lanpostuak sortzearen ondorioz? Pertsona horiek jarraitu zituzten **ibilbideak ikertu eta mapa bat egin zenezake**, eta iritsitako komunitateei edo lekualdatu zirenei buruz zenbat aurki dezakezun ikusi.
3. Inguruko **eraikinek izan dituzte nazioarteko eraginak** ezagutzeko, ezaugarri arkitektonikoak eta diseinua aztertuko dituen adituekin bisita gidatuak antolatu.



Iturria: Zumalakarregi Museoa

# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2024KO OEJ-ETAN?

## Idea batzuk...

### Komunitateen arteko harremanak kultura-ondarearen sustatzaileak

1. **Etorkinen komunitateekin eta diasporakoekin lan egin**, eta beren istorio pertsonalak partekatzeko aukera eskaini; kontakizun hauek aldez aurretik aukeratutako gai batean oinarritu ahal dira, baina gertaerei edo haientzat esanahi berezia duten objektuetan oinarritu ahal dira.
2. **Migrazioaren, nortasunaren eta ondarearen arteko harreman konplexuari buruzko mahai-inguruak antolatu**. Horietan adituak eta askotariko pertsonak beren ikuspuntuak eta esperientziak parteka ditzakete.

# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2024KO OEJ-ETAN?

## Idea batzuk...

### Ondare eragileen sareak kultura-ondarearen dinamizatzaileak

1. **Beste kultur eragileekin batera erakusketa ibiltari bat** antolatu ondarearen inguruan.
2. Tokiko kultur eragileak bildu Europako paisaietan eragina izan duten sarei buruz eztabaidatzeko...

# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2024KO OEJ-ETAN?

## Idea batzuk...

1. **Hiriko sareek** hiriaren plangintzan eta diseinuan duten eragina erakusten duten bisita gidatu arkitektonikoak egin. Hiriek nola eboluzionatu duten esploratu, **merkataritza eta kultura ibilbideetan dauden interkonektatutako gunen bihurtuz.**
2. **Parte-hartzaileak merkataritza bihurtzen diren jolas interaktibo bat antolatu, ibilbide komertzial historikoen bidez nabigatzen duten,** akordioak negoziatu eta merkataritza-sare emankorrak sortzeak dakarren erronka esperimentatu.
3. **Topaketa eta negoziazio diplomatiko historikoak bisortu,** nazioen arteko aliantzei eta lankidetzari forma eman zietenak. Sare diplomatikoek Europako historian izan duten eraginari buruzko eztabaida eragin dezake...
4. Herriko antzerki-talde batekin lan egin **ibilbide edo bidaiaren esanguratsu baten historian oinarritutako emanaldiak antolatzeko,** jendeak ibilbide honetako lekuren bat bisitatu baitezake.



# ZEIN JARDUERA SORTU DITZAKEGU 2024KO OEJ-ETAN?

## Idea batzuk...

5. Lagundu zure herriko museoari **gehien bidaiatu duten objektuak identifikatzen**, eta elkarlanean, museoraino egindako ibilbidea marraztu.

6. **"Ezagutu zure kalearen izena"**: Arakatu munduko beste leku batzuetan sustraiak dituzten kaleen izenen historia.

7. **Identifikatu zein izan diren zure herriko bidaiariak**. Estatua bat izan daiteke abiapuntua edo museo bateko piezaren bat ere. Sortu mapa bat non bidaiatu zuten eta zergatik egin zuten ikertuz. Tailerra edo erakusketa bilakatu daiteke.

8. **Ibaiek merkataritza-ibilbide garrantzitsu** eta berrikuntza-zentro gisa duten garrantzia nabarmentzen duten tailerrak antolatu, ibai-sareek hazkunde ekonomikoan izan duten eragin historikoa aztertuz.

9. **Garraioari lotutako espazio historikoen ateak ireki** (tren-geltoki zaharrak, ibai-presak, zubiak, portuak, aireportuak...), denboran zehar izan duten hazkundera erakutsiz. Azpimarratzekoa da bere bilakaera arkitektonikoa eta komunitateen konexioa.

# NOLA BIDALI DEZAKET NIRE PROPOSAMENA?

**Gipuzkoa kultura webgunearen bidez:** jardueraren deskribapena, argazki eta antolatzaileen logoekin. Antolatzaileen sare sozialen informazioa eskatuko da urte honetan. Informazio hau aktibitate programa egiteko erabiliko da. Elebidunean eskatuko da informazio hau.



# NOLA BIDALI NERE PROPOSAMENA?

**Ekainaren 1era arte** Gipuzkoa kulturean **apirilaren 15tik** aurrera egongo den formularioaren bidez.

Urte honetan **argazkiak eta logoak** webgunearen bidez bidaliko dira.

Antolatzaileen **sare sozialen helbideak** eskatuko dira.

Aktibitatea **zein lan ildorekin lotzen den zehaztuko da**. Proposamenaren deskribapena **bat etorriko da hautatutako lan-lerroarekin**.

**Informazio elebiduna** bidaltzea

Ekitaldiak dituen **irisgarritasun neurriak** eta zein **gizarte kolektiborentzat** egokituta dagoen jarduera.

Ez bazaude ziur zure ekitaldia bidali duzula, edo arazoren bat duzu, bidali mezu elektronikoko bat **[gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus](mailto:gipuzkoa.oej@gipuzkoa.eus)** edo **[gipuzkoa.oej@gmail.com](mailto:gipuzkoa.oej@gmail.com)** helbidera.


# DATAK

**Jardueren proposamenak bidaltzeko epea:** 2024/04/15 - 2024/06/01

**Programaren garapena:** Ekaina - uztaila (behin betiko testuak)

**Programa osoa jendaurrean aurkeztea :** Irailean

**Ondarearen Europako Jardunaldiak:** Urrian gehien bat, irailean eta azaroan antolatzen diren ekintza batzuk onartuko dira.



**MILA ESKER!**  
**¡MUCHAS GRACIAS!**

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA ORAIN**  
Es futuro



European Heritage Days  
Journées européennes  
du patrimoine

# GALDERAK?

